

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2021eko erroldari

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut:

Tokiko gobernu batzarrak, 2021eko ekainaren 24an egindako bilkuran, behin-behineko onspena eman zion jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2021eko erroldari (2021/S280/1 espediente), eta 2021eko uztailaren 9an argitaratu zen ALHAOn, 76 zenbakian. Erabaki horren aurka erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta argitara ematen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2021eko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, gorago aipatutako errolden ordainagiriak.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituzten zergadunek udaletxeko kutzazain automatikoan eta euskal administrazioaren ordainketa pasabidean ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak. Horretarako, udalaren web orrira jo beharko dute (<http://amurrio.eus/es>), "Nire ordainketa" aukerara.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga Bilketarako Araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2021eko irailaren 1a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA